

BAZTANGO ORDENANTZA, KOTO ETA PARAMENTU BERRIAK

I TITULUA

Baztango administrazio organuak

I KAPITULUA

Batzar Nagusia

1. ATALA

Kideak

1. Artikulua

Batzar Nagusia hauek eratuko dute: Udalak, Baztango hamabortz herrietako alkate (zinpekoek) eta lau junterok, Baztango lau kuarteletarik bana. Hauek dira kuartelak:

- Baztangoiza: Erratzu, Arizkun, Azpilkueta eta Amaiur herriek osatua.
- Elizondo: Elizondo, Lekaroz eta Elbete herriek osatua.
- Erberea: Irurita, Gartzain, Arraioz eta Oronoz herriek osatua.
- Basaburua: Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herriek osatua.

2. Artikulua

1.–Batzar Nagusiak ahalmena izanen du Baztango herri-ondasunak administratzeko, ordenatzeko, aprobetxamenduen araubidea ezartzeko, babesteko eta zaintzeko.

2.–Batzar Nagusiak herri-lur guztien kontserbazio, defentsa, hobekuntza eta berreskuratzea zainduko du, eta herri-lurrean kalteak eragiten ahal dituen zeinahi pribatizazio-saio nahiz ekintzaren aurka agertuko da.

3. Artikulua

Baztango alkatea izanen da Batzar Nagusiko burua.

4. Artikulua

1.–Kuartel bakoitzeko batzarreak izendatuko ditu kuarteleko junteroak eta mendi-kargudunak. Batzarre bakoitzak boto bat izanen du. Berdinketa egonez gero, kuartel horretako herritarren artean boto gehien bildu duen pertsona hautatuko da. Herriko alkatea hautatzeko egiten den bilkura berean egiten da bozketa. Behin aukeratuta, junteroak eta mendi-kargudunak hautatuko dira. Ezinbertzeko baldintza izanen da izendatutakoak dagokien kuarteleko herritarrak izatea.

Juntero edo kargudun izateko beren burua aurkeztu nahi duten pertsonak idatziz igorri beharko diote dagokien herriko alkateari, eta, ondoren, horrek idatziz igorriko du hautagaien zerrenda udal erregistrora. Hautaketa egin baino 7 egun lehenago herrietako alkateek hautagaien zerrenda udalera ekarriko dute. Udalak bandoen bitartez jakinaraziko die herriei zein diren hautagaiak.

2.–Juntero eta kargudunak lau urtez egonen dira karguan. Hortaz, Batzar Nagusiak egiten duen lehendabiziko bilkuran izendatuko ditu. Juntero eta kargudunak Batzar Nagusiko kideak dira, eta juntero izateko hobegarria izanen da aitzinetik noizbait herriko alkate izandakoa izatea. Junteroen eginkizuna da, Batzar Nagusiaren bilkuretara joateaz gain, txostenak egiten eta Batzar Nagusiak eskatutako gaietan aholkatzea eta parte hartzea.

5. Artikulua

Batzar Nagusiaren bilkura arrunt eta berezietan, 8 mendi-kargudunek hartuko dute parte, kuarter bakoitzeko bik; hitza izanen dute, baina botorik ez.

6. Artikulua

Udaleko idazkaria izanen da Batzar Nagusiko idazkaria.

2. ATALA

Funtzionamendua

7. Artikulua

1.–Batzar Nagusiak urtean gutxienez ohiko lau bilkura egingen ditu, hiruhileko naturalaren lehendabiziko egun baliodunean.

2.–Behar den aldi oro Batzar Nagusia bilkura berezian batzartuko da, Batzarreko buruak deitua edo Batzar Nagusiko kideen laurdenek hala eskatzen badute.

8. Artikulua

1.–Baztango Batzar Nagusian, kideen gehiengo soilez onetsiko dira erabakiak.

2.–Batzar Nagusiak egiten dituen bilkuretan, ordenantza hauetako gaiei buruz hartzen diren erabaki eta ebazpenetan, botazioetan berdinketarik suertatzen bada, bigarren botazioa egingen da, eta, berdinketak jarraituz gero, Batzar Nagusiko buruaren botoa duen alderdiak erabakitzen duena gailenduko da.

9. Artikulua

Antzina-antzinako ohiturari jarraikiz, bete beharrekoa izanen da Batzar Nagusiaren bilkuretan erabaki eta akta liburuan idazten den oro, bai komunitatearen mesedetarako xedapenak bai ordenantzetan bildutako kontzeptuen argibideak, ordenantzetan balego bezainbertzeko indarrarekin, betiere erabaki horiek ordenantzak hausten ez badituzte edo foru xedapenen kontra jotzen ez badute.

10. Artikulua

1.–Baztango Udalaren oihanzainak agintaritzat joko dira, beren lanean ari direlarik.

2.–Beren funtzioak betetzen ari direlarik eginiko ikuskapen aktek eta salaketek egiazkotasunaren presuntzioa izanen dute haietan jasotako egintzei dagokienez.

II KAPITULUA

Herriko alkatea

1. ATALA

Hautatzailea

11. Artikulua

1.–Baztanen beti mantendu den ohiturari jarraikiz, Baztan osatzen duten hamabortz herrietako bakoitzean herriko alkate bat izanen da.

2.–Herriko alkate izanen da auzotasuna herrian duen, adinez nagusia den eta bertako herritarrek batzarrean, 12. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz, hautatzen dutena. Udal erroldan inskribatuak daudenak dira herritarrak.

12. Artikulua

Herriko alkateak hautatzea:

1.–Herriko alkatea bi urterako hautatuko da, herritar guztien artean, abenduko hirugarren astebururako deituriko batzarrean parte hartzen duten pertsonen gehiengoak hautatuta.

2.–Batzarrea egin aitzin, herrietako alkateek eskura izaten ahalko dute herritar guztien zerrenda ziurtatua, aste bat aitzinetik, jendaurrean paratzeko. Zerrenda urteko azken zuzenketaren arabera izanen da, eta hautatze egunean hemezortzi urte beterik dituztenak ageriko dira.

Honela paratuko da jendaurrean: iragarki oholean ohar bat paratuko da, eta bertan adieraziko da interesdunek egiaztatzen ahalko dutela erroldan sartu diren, herriko alkateari eskaera eginez edo udalaren bulegoetan eskaera eginez.

3.–Herri bakoitzean, herriko alkateak erabakiko du bilera noiz hasiko den, eta astebete lehenago jakinaraziko du. Hautaturiko egunean, bertako herritarrak batzartegian edo hautatutako bertze leku batean batzartuko dira. Herriko alkatea izanen da batzarreko burua, eta bera eta bi kargudun bederen izanen dira. Batzarreko idazkaria idazkari lanetan arituko da.

4.–Hautagaitzak batzarrean bertan aurkeztu beharko dira, eta herriko alkateari emanen zaizkio idatziz, hautagaiaren onespren sinatuarekin, edo ahoz. Herriko alkateak hautagaien izenak jakinaraziko ditu. Hautagai bat baino gehiago baldin bada, botazioa hurrengo igandera gibelatuko da, eta herrian jakinaraziko da hautagai bat baino gehiago dela.

5.–Hautagai bakarra aurkeztuz gero, batzarrean dauden herritarren gehiengoak berretsi beharko du, eta, horrela eskatzen bada, botazioa egingen da.

6.–Herriko alkateak eta aurkezturiko hautagai bakoitzaren ordezkari batek eratuko dute hauteskunde mahaia. Herriko alkatea hautagaia bada, kargudun batek ordezkaturiko du. Udalbatzako kideak ez dira aurkezten ahalko herriko alkate izateko.

Une oro, gutxienez bi mahaikidek egon beharko dute mahaian.

7.–Bozketa zuzena eta isilpekoa izanen da, eta boto paperen bidez egingen da, gutun azal batean sartuta. Udalak emanen dizkie gutun azalak eta boto paperak, eta mahaia erabakitzen duenean hasiko da bozketa. Hautesle bakoitzak hautagai bakar bati ematen ahalko dio botoa.

Boto paperak herriko alkateari emanen zaizkio, eta horrek txartelak hautetsontzi garden batean sartuko ditu, bertaratutakoen begi bistan. Herriko alkateak botaziorako zenbat denbora ematen den xedatuko du, betiere hiru ordu gutxienez.

8.–Botazioa akiturik, mahaiak zenbaketa egiaztatuko du. Mahaiburuak boto txartelak banan-banan atera, eta ozenki irakurriko ditu. Mahaikideek emaniko botoak idatziko dituzte.

9.–Boto gehien lortu duen hautagaia izendatuko dute herriko alkate eta, botazioan berdinketarik baldin bada, bigarren deialdi bat egingen da. Berdinketak jarraituz gero, zozketa egingen da berdinduta dauden hautagaien artean.

10.–Kargua uzten duen herriko alkateak herriko alkate berriaren izendatzeko erabakia Batzar Nagusiari igorriko dio ofizialki, horrek egiten duen lehen bilkuran, eta batzarrearen akta erantsi beharko du.

11.–Hautagairik ez bada, hautatzea urtarrileko lehen hamabortzaldian errepikatuko da, aitzinetik ezarritako moduan. Bigarren deialdian hautagairik aurkezten ez bada, Batzar Nagusiko buruak batzarre bat deituko du hilabeteko epean, egoeraren berri emateko.

12.–Herriko alkateren batek kargua uzten badu hautatua izan den bi urteko aldia akitu baino lehen, batzarrerako deia egingen du erabakia jakinarazteko eta herriko bertze alkate bat hautatzeko prozesua irekitzeko.

2. ATALA

Herrietako alkateen eskumenak eta eskudantziak

13. Artikulua

Herriko alkatearen eskumenak:

1.–Herriko batzarreetako burua izatea. Herri bakoitzeko alkatea hautatu duteneko herriaren ordezkaria da.

2.–Hautatu duteneko herriaren izenean mintzatzeko da. Herritarren eskaerak, kontsultak eta bestelako gaiak Batzar Nagusira eta Udalera eramanen ditu. Baita alderantziz ere. Lan hori egiteko, horretarako behar diren baliabideak emanen dizkio Udalak.

3.–Bertako herritarrei arreta ematea, arrazoizko denboran eta moduan, eta batzarreari arreta prozedura jakinaraztea.

4.–Batzarreak hartutako erabakiak gauzatzea.

5.–Herriko batzarrerako deialdia egitea.

6.–Herriko auzolanetarako deia egitea.

7.–Horretarako prestatutako herriko iragarki ohola eguneratua edukitzea, eta bertan izatea hondarreko batzarreetako aktak eta egokitzen jotzen dituen bertze idazki edo komunikazioak.

8.–Herri-galdeketak egitea dagokion herrian. Galdeketa hemezortzi urtez goitiko pertsonen hartzen ahalko dute parte, betiere herritarrek badira hamabi hilabete aitzinetik gutxienez.

9.–Kanposantuko egoera eta zainketa maila ezagutu beharko ditu, eta horren segimendua egin. Horren berri eman beharko die Udalarari eta Batzar Nagusiari, egoerak hala eskatzen duelarik.

10.–Udal aurrekontuak egiteko bere herriko batzarrearen proposamenak igorriko ditu herriko alkateak.

11.–Herriko alkateak herriaren dirua kudeatuko du, eta urtero kontuak eman beharko dizkio batzarreari.

14. Artikulua

Herriko alkatea herriko Ur Batzordeko buru izanen da, uraren kudeaketaz Baztan mailan onartzen den antolakuntza alde batera utzita; betiere, ezarritako hitzarmen edo akordioak errespetatuko dira. Ildo horretan, uren, hornidura eta saneamendu sarearen egoera behatu beharko du, bai eta uraren aferarekin loturiko bertze gaiak ere..

15. Artikulua

Herriko bestak antolatzearen ardura izanen du herriko alkateak. Besta batzordea dagoen herrietan, hura izanen da bestak antolatzeko arduradun. Besta batzorderik ez den herrietan, herriko alkatea izanen da horren arduradun, eta horretarako prest diren herritarren laguntza izanen du.

16. Artikulua

Baztango Udaleko alkate-udalburuak jakinarazi ondoren, herriko alkateak herriari eragiten dioten Udal Planaren aldaketei buruz herriko batzarreak eginiko proposamenak igorriko ditu.

Jakinarazpena egin eta biharamunetik 20 egun naturaleko epean batzarreak txostenik ematen ez badu Udal Planerako proposaturiko aldaketari buruz, ulertuko da ez dagoela haren aurka.

17. Artikulua

Aspaldiko ohiturari jarraikiz, herrietako alkateek gutxienez bertako bi herritar izendatuko dituzte kargudun, bere eginkizunetan laguntza emateko.

18. Artikulua

Herriko alkateak diru sari bat jasoko du eginiko lanarengatik.

19. Artikulua

Baztango herriren bat herriko alkaterik gabe gelditzen bada, Batzar Nagusiak ezarriko ditu behar diren neurriak, salbu eta herriko alkateak kargua uzten duenerako 12.12 artikuluan ezarritakoari dagokionez.

III KAPITULUA

Batzarreak

20. Artikulua

Batzarrea herritarren bilkura da, Baztango 15 herrietako bakoitzean egiten dena; herriko alkateak eta bertako herritarrek osatzen dute. Bertan, herri mailan zein Baztan mailan interes publikoa duten gaiak aztertuko dira.

21. Artikulua

Batzarrean auzotasuna duten hemezortzi urtetik goitikoek hartuko dute parte. Bertze inork ez du izanen botoa emateko eskubiderik. Alta, herrian etxebizitza bat izan eta herriko alkatearen aitzinean horren jabe direla egiaztatzen duten pertsonak ere parte hartzen ahalko dute. Hitzarekin baina botorik gabe parte hartzen ahalko dute, halaber, eztabaidatuko den gairen batean interesa egiaztatzen dutenek, herriko alkateak proposaturik eta batzarreko gehiengoak haiek bertaratzea berretsita. Bilkuran egoten ahalko dira soilik parte-hartzea eskatu duten gaia landu bitartean. Batzarrerako asistentzia pertsonala izanen da, eta inor ez da hirugarren batek ordezkatua izaten ahalko.

22. Artikulua

Herriko alkateak egingen du batzarrerako deia. Dena den, honako hauek izanen dute eskumena herriko alkateari batzarrerako deialdia egin dezala eskatzeko:

–Batzarreak berak bertze batzarre baterako deialdia egiten ahal du.

–Batzar Nagusia.

–Batzarrera joateko eskubidea duten herriko biztanleen % 25.

23. Artikulua

1.–Batzarrea ohiko lekuan egingen da, herriko alkateak bertze lekurik aipatzen ez badu.

2.–Batzarrerako deia gutxienez ere bi egun natural aitzinetik egingen da.

3.–Deialdia jendearen aitzinean paratuko da herri bakoitzeko iragarki oholean eta herri bakoitzeko ohiko lekuetan.

4.–Beharrezkoa izanez gero, Udalak areto bat paratuko du herriaren esku batzarreak egiteko.

24. Artikulua

1.–Herriko alkatea izanen da batzarreko burua, eta kargudunek lagunduko diote.

2.–Herriko alkateak edo hark izendatutako bertze pertsona batek batzarreko aktak egingen ditu, eta hartutako erabakiak ziurtatuko ditu. Aktaren kopia bat Udalari igorriko zaio, artxiba dezan.

3.–Aktak eta dauden dokumentu publikoak batzarregian gordeko dira, hau da, batzarrea egiten den lekuan. Herritarrek akta ikusteko eskubidea dute, eta herriko alkateak bermatu behar du eskubide hori.

25. Artikulua

Herriari eta/edo Baztani eragiten dioten gaiak aztertuko dira batzarretan. Erabakiak aktan jasoko dira, eta Batzar Nagusiari igortzen ahalko zaizkio.

IV KAPITULUA

Auzolanak

26. Artikulua

1.–Tokiko herritarrek norberaren prestazioaren bitartez herriari berari eta Baztani egiten dieten ekarpena da auzolana.

2.–Norberaren urteko prestazioa ez da hamar egunetik goitikoa izanen, ezta ondoz ondoko hiru egunetik goitikoa ere. Bertze pertsona egoki batek ordeztzen ahalko du, bere borondatez edo lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza adina diru ordainduta.

27. Artikulua

1.–Herriko alkateak egingen du auzolanerako deia.

2.–Deialdia iragarki oholetan emanen da aditzera.

28. Artikulua

Herriko alkateak auzolana planifikatu eta antolatuko du, kargudunen laguntzarekin. Halaber, egin beharreko lanaren balorazioa egingen du, lana gauzatzeko behar den gutxieneko eta gehieneko pertsona kopurua ezartzeko.

29. Artikulua

Auzolanean parte hartu beharko dute herri bakoitzean bizi diren pertsonak, indarrean dagoen foru araudiak aurreikusten dituen salbuespenak izan ezik.

30. Artikulua

Nahitaezko prestaziora bertaratu ezean, herriko alkateari aldez aurretik justifikatu gabe, salbu eta ezinbertzeko kasua bada, ordaindu beharko da herriko batzarrean bertan ezarritako zenbateko bat.

31. Artikulua

Baztango Udalak prestazioa egitera beharturik direnei suertatzen ahal zaizkien istripuen arriskua estaliko du aseguru bat kontratatuz.

V KAPITULUA

Kontribuzioak

32. Artikulua

Udalak bidezko jotzen duen diru kopurua paratuko du Baztango hamabortz herrien artean banatzeko: kopuru horren erdia hamabortz herrien artean zuzen hainbanaturik, eta bertzea hondarreko udal eroldaren arabera.

33. Artikulua

1.–Herriko betebeharrei erantzuteko, herriek ordainparteak egiten ahalko dituzte bizilagunen artean.

2.–Herrietako zeinahi zerga bereziak ezarri nahi baditu, egin aitzin batzarrean erabaki beharko da, eta Batzar Nagusiari jakinarazi.

34. Artikulua

Erdietsitako baliabideez egiten den kudeaketaren inguruko kontuak emanen zaizkie bertako herritarrei, Baztango Udalari eta Batzar Nagusiari.

II TITULUA

Herri-lurrak

I KAPITULUA

Herri-ondasunak

35. Artikulua

1.–Baztango herri-ondasunak dira Batzar Nagusiaren titulartasuna dutenak. Haien erabili, defendatu, antolatu eta hobetzeko ahalmenak gauzatzea Batzar Nagusiari dagokio; haien erabilera eta aprobetxamendua ordenantza hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten Baztango herritarrei dagokie. Herri-lurrak bertzerenezinak, ezinbertzekoak eta bahituezinak dira, eta ez daude inolako zergari lotuak.

2.–Auzo-aprobetxamendurako ez diren herri-lurretako aprobetxamenduak (oihan loteak, harrobiak, ehiza, etab.) herritarren mesedetarako izanen dira udal aurrekontuen bitartez, eta haien aprobetxamendua erregulatzen duten foru legeek eta Batzar Nagusiak onetsitako baldintzen agiriak arautuko dituzte.

3.–Aprobetxamenduen emakidadunek urtero ordainduko dute herri-lurren aprobetxamendurako kanon gisa ordenantzek ezarritako kopurua. Irazelaiak baliatzeak dakarren ingurumen onura eta beharra kontuan harturik, ez da inolako kanonik kobratuko aprobetxamendu horien truke.

4.–Aprobetxamenduak garbi eta hondakinik gabe mantendu beharko dira beti.

36. Artikulua

Herri-aprobetxamenduak dira baztandarrek zuzenean egiten dituztenak Batzar Nagusiak emandako kontzesioaren bidez, eta ez dira saltzen, eskualdatzen, akuratzzen edo emakidan uzten ahalko, ordenantza hauetan jasota dauden kasuetan izan ezik.

Azaroaren 1etik martxoaren 15era bitartean, baimena ematen da luberriaren ustiategitik kanpoko azienda alhatzeko, baldin eta azientaren titularrak 38. artikuluan adierazitakoa betetzen badu eta luberriaren aprobetxamenduaren titularraren baimena badu.

37. Artikulua

Oro har, emakida eta aprobetxamendu guztientzat, erregistro bat ezarriko da, eta Baztango idazkariak eramanen du. Emakida kokatzeko ezinbertzeko datuak izan beharko ditu, eta katastroko identifikazioa ere jaso beharko du.

38. Artikulua

Onuradunak:

1.–Oro har, zeinahi auzo-aprobetxamenduen onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Baztango herritarra izatea, eta gutxienez azken bi urteetan erroldatuta egotea.
- b) Baztango Udalari egin beharreko zerga ordainketa egunean edukitzea.

2.–Lehendabiziko instalazioko abeltzainari edo nekazariari eskatuko zaio Baztanen erroldatuta egotea urtebetez gutxienez, baldin eta Batzar Nagusian aurkezten badu Nafarroako Gobernuak lehendabiziko instalaziorako onetsitako proiektuaren egiaztapena.

3.–Ez dira emakidadun izaten ahalko natura-baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituengatik epai irmo baten bidez kondenatutako pertsonak. Eskaera egitean, zinpeko adierazpen bat sinatuko da, kondena irmorik ez duela adierazten duena.

39. Artikulua

Herri-lurren aprobetxamenduaren emakidadunak lanak bi urteko epean egin beharko ditu; bertzenaz, Batzar Nagusira itzuliko da. Baztango Udaleko oihanzainek egiaztatuko dute lan horiek egin diren ala ez. Herri-aprobetxamendua egiteak dakartzan administrazio-gastu guztiak emakidadunaren kontura izanen dira. Alta, Baztango herri baten izenean egiten bada eskaera, sorturiko gastuak Udalaren bizkar izanen dira.

40. Artikulua

Batzar Nagusiak, salbuespenez eta hark interes orokorreko adierazpena egin ondoren, zeinahi unetan xedatzen ahalko du lurraren erabilera eta egoki iritzitako aprobetxamenduak, eta horien emakidak indarrrik gabe utziko ditu. Emakidadunari gutxienez lau hilabeteko epean jakinarazteaz gain; baja eman; tasazioa egin, eta kalte-ordainak emanen zaizkio, ordenantza hauen 1. eranskinean ezarritakoari jarraikiz. Kasu horietarako, eranskin horretan ezarritako zenbatekoaren bikoitza izanen da.

41. Artikulua

1.–Batzar Nagusia izanen da aprobetxamenduaren emakida iraungitzeko espedientearen ebazteko organo eskuduna, eta ofizioz hasiko da beti, bere ekimenez zein pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatu batek salatuta. Aprobetxamenduetan, 2. eranskinean ezarritako jarraibideak beteko dira.

2.–Azkentze espedientea izapidetzen den bitartean, hamabortz eguneko epea emanen da egokitzen jotzen diren alegazio eta dokumentu guztiak aurkezteko eta, hala badagokio, froga proposatzeko, baliatu nahi diren bitartekoak zehaztuta, Administrazio Prozedura Erkidearen araudian ezarritakoaren arabera.

II KAPITULUA

Larreak

42. Artikulua

Auzo-aprobetxamenduaren ondorioetarako, Baztango larreak honela sailkatzen dira: erabilera komuneko mendiko larreak, banakako erabilerako luberriak, larraskak eta gainerako herri-lurretako abeltzaintza.

43. Artikulua

1.–Baztango herri-lur irekietan baldintza hauek betetzen dituzten herritarren azienta alhatuko da: 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, azienta bere izenean izatea, azienta Baztanen erregistraturik izatea, indarrean dauden abere osasuneko betebeharrak betetzea eta Batzar Nagusiaren baimena izatea.

2.–Herritarrak mota eta espezie orotako azienta markatu beharko du, une oro norena den jakiteko moduan.

3.–Bertze eskualde edo ibarretako azientak galarazia izanen du Baztango herri-lurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan.

1. ATALA

Mendiko larreak

44. Artikulua

1.–Gaur egun, mendiko larreak dira Belate, Erdizaga eta Lizartzuko eskindegietan daudenak.

Aprobetxamendua batera egingen dute Baztango abeltzainenak diren azientek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, abeltzain txartela izatea eta azienta Baztanen erregistraturik izatea. Azientak arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak beteko ditu.

2.–Baztango Batzar Nagusiaren erabakiaren bidez arautuko da mendietako larretan alhatzea.

2. ATALA

Luberriak

45. Artikulua

Batzar Nagusiaren baimen edo adjudikazio zuzenaren bidez Baztango hainbat herritan herri-lurretan egiten diren larreei luberri deitzen zaie.

46. Artikulua

1.–Ordenantza honi jarraikiz eginen dute aprobetxamendua Batzar Nagusiak baimendutako adjudikaziodunek. Aziendak arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak beteko ditu.

2.–Batzar Nagusiak behatuko du eskatutako baldintzak betetzen direla, eta, horretarako, protokolo bat ezarriko da Nafarroako Gobernuari ganaduaren errolda eskatzeko.

3.–Ez zaie luberrietarako baimenik ematen ahalko 3 AzLU (Azienda larriko unitate) baino gutxiago dituzten titularrei, edo 6 AzLU baino gutxiago, poneyen kasuan. Halaber, adjudikatutako luberrien azalera ez da 1 AzLU/ha-ko abere-zamaren proportzioa baino txikiagoa izaten ahal.

4.–Onuradun batek abeltzaintzako erroldan baja hartzen duenean, hiru hilabeteko epea izanen du luberritzeari baja emateko edo titulartasuna aldatzeko eskatzeko. Hori egiten ez badu, Batzar Nagusiak zuzenean emanen die baja aprobetxamenduei.

47. Artikulua

Honako hauek izanen dira luberri baten aprobetxamendua iraungitzeko zioak:

1.–38. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea.

2.–Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzea.

3.–Osasun beharkizunak ez betetzea.

4.–Mendian baimenik gabe erreketak egitea.

5.–Luberriaren ekoizpena larriki andeatzea.

6.–Emandako luberrien berralokatzea edo lagapena egitea, 36. artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

7.–Ez edukitzea gutxienez 3 AzLU, edo 6 AzLU poneyen kasuan. Halaber, adjudikatutako luberrien azalera ez da 1 AzLU/ha-ko abere-zamaren proportzioa baino txikiagoa izaten ahal.

48. Artikulua

1.–Eskaera idatziz eginen da, eta zehaztuko da zein lekutan egin nahi den aprobetxamendua, katastroko erreferentzia (poligonoa eta lurzatia) eta zenbat gizalur (374 metro koadrokoak) luberritu nahi diren.

2.–Batzar Nagusiko batzorde koordinatzaileak eta oihanzainek eskaeraren gaineko txostena eginda eta Batzar Nagusiak onetsi ondoren, mugatze akta eta txosten teknikoa egitea eskatuko da; horietan, kokapena zehaztu behar da (ETRS 89, 30 UTM koordinatuak); mugatu behar da, eta zedarritzearen mugarri oro argi eta garbi agertzen dituen plano bat egin. Dokumentazioa hirukoitz eginen da: ale bat Udalarari emanen zaio; bigarrena, emakidadunari; eta hirugarrena, Nafarroako Gobernuari. Euskarri digitalean ere aurkeztuko da, ondoren herri-lurren geruza digitalean erregistratu ahal izateko. Planoak aurkezteko bi urteko epea izanen dute, gehienez.

3.–Aitzinetik aipaturiko lan guztiek eragindako gastu guztiak emakidadunaren bizkar izanen dira.

4.–Emakidadunek beren lursailen ondoko herri-lurrak luberritzen ahalko dituzte, baldin eta Batzar Nagusiak horretarako baimena ematen badu; alta, horrek ez du baztertuko bertze baimen batzuk behar izatea, lurren oihan izaera kontuan hartuta (Nafarroako Foru Komunitateko Oihan Administrazioa).

5.–Luberritutako herri-lurren itxiturek (paretakoak, alanbre ziztakaridunekoak zein metalezko sarezkoak izan) indarrean dagoen hirigintza araudia bete beharko dute. Zuhaixa heskaiak biodibertsitateko duten onura dela eta, 5 metroko distantzia gordeko da bideen ertzetan egiten diren itxituretan, zuhaixa heskaiak berez haz daitezten. Luberritutako herri-lurretan itxitura berriak egiteko baimena emateak ez du baztertuko bertze baimen

batzuk behar izatea, lursailen oihan izaera kontuan hartuta (Nafarroako Foru Komunitateko Oihan Administrazioa).

6.–Luberritzeko baimena duten herri-lurrak, emakida ematen denetik bi urtetan landuko dira. Bertzenaz, emakida deuseztatuko da, eta emakidadunak Udalarri luberritzeko eskubidearengatik ordaindutako dirua eta eginiko lan partzialak (itxiturak eta abar) galduko ditu, Baztanen esku geldituko baitira.

7.–Emakidadunak aprobetxamendu aldaketa eskatzen bada, luberritik landatzera edo luberri ez den bertze aprobetxamendu moduren batera, aldaketa hori ez da onartuko modu independentean funtzionatzen ahal duten luberrien kasuetan, salbu eta aldaketa fruta arbolak landatzeko bada; kasu horretan, onartuko da, baldin eta aldaketa hori ez bada egiten Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartutako herri-lurren gainean, kasu horretan ez baita aldaketa onartuko oihanen arloko foru-legerian xedatutakoaren arabera. Jabetzei erantsirikoen kasuan, aldaketa horiek ere ez dira onartuko 4.000 m²-tik goitikoak badira, salbu eta aldaketa fruta arbolak landatzeko bada, kasu horretan onartuko baita.

8.–Batzar Nagusiak, oro har, hamar urtean behin berrikusiko ditu luberriak aprobetxatzeko emakidak, inbertsio publikoko zein pribatukoak izan, ordenantza hauek onesten diren urtetik hasita. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak zeinahi unetan berrikusten ahalko ditu luberritzeak, egoki iritziz gero. Emakidak automatikoki berrituko dira hamar urteko aldietarako, ezarritako baldintzak betetzen dituzten titularrentzat.

49. Artikulua

1.–Ordenantzen 47. artikuluko 3., 5., 6. eta 7. apartatuetan jasotako iraugintze kasuetan, aprobetxamendu emakida iraugintzeko espedientea hasi aitzin, gehienez sei hilabeteko epea emanen da iraugintzeko zioa zuzentzeko.

2.–Arrazoiak zuzendu badira, prozedura amaitutzat joko da. Egoerak bere horretan badirau, aprobetxamenduaren emakida azkentzeko espedientea hasiko da.

3.–Sei hilabeteko aldia amaitzen denetik bi urteko epean artikuluko honetako lehendabiziko apartatuan jasotako kasuren bat gertatzen bada, ez da aukerarik izanen zioa zuzentzeko, eta zuzenean hasiko da aprobetxamenduaren emakida iraugintzeko espedientea.

50. Artikulua

Aprobetxamenduaren emakidaduna hiltzen bada, legezko oinordekoek ustiapenarekin jarraitu nahi badute, jaraunspena onartzen denetik hamabi hilabeteko epea izanen dute titulartasuna aldatzea eskatzeko. Eskatzaileek 38. artikulua ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta, era berean, bigarren mailara arteko (odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko) ahaidea izan beharko da. Gehienez hamar hektareako titulartasun aldaketak onartuko zaizkie ustiategiarekin jarraitzen duten eta lanbide nagusia nekazaritza ez duten legezko oinordekoei. Ezarritako gehienekoa gaudituz gero, eskatzaileak idatziz adierazi beharko du zein luberri aldatu nahi dituen titulartasunez.

Hamabi hilabeteko epean titulartasun aldaketa eskatzen ez bada, azkentze espedientea hasiko da, eta herri-lurrak automatikoki itzuliko zaizkio Batzar Nagusiari, eta 52. artikuluan ezarritakoari jarraikiko zaio.

51. Artikulua

Titulartasun aldaketak.

50. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, honela jokatuko da herri-lurren aprobetxamenduaren onuradunaren titulartasuna aldatzeko eskaera egiten denean:

1.–Eskatzaileek ordenantzen 38. artikulua ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.–Gainera, eskatzaileak bigarren mailara arteko (odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko) ahaidea denean eta ustiategi berarekin jarraitzen duenean baizik ez da onartuko titulartasun aldaketa. Bertzenaz, aldaketa ez da onartuko, eta 52. artikuluan ezarritakoari jarraikiko zaio.

3.–Titulartasun aldaketetan, onuradunak 52.2 artikuluan ezarri den baino hektarea gehiago baditu, 52. artikuluan ezarritakoari jarraikiko zaio.

4.–Luberriaren titulartasuna aldatzea onartuta, emakidadun berriak bertze azienda batekin erabiltzen ahalko du.

52. Artikulua

Lehendik dauden luberrien aprobetxamendua.

Lehendik dagoen luberri bat aprobetxamendurako gisa gelditzen denean, prozedura honi jarraikiko zaio:

1.–Batzar Nagusiko buruaren ebazpen bidez, hilabeteko epea irekiko da interesdunek eskabideak udal erregistroan aurkez ditzaten. Horretarako, iragarkia jarriko da udalaren webgunean, udalaren eta Baztango herrietako iragarki oholetan, herrietako alkateen bitartez.

2.–Ez da onartuko onuradunek 30 hektareatik goiti eskatzea.

3.–Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, lehentasun zerrenda hau ezartzen da, eskatzaileen arabera:

1. Lehentasuneko ustiategiak.

2. Lanbide nagusia nekazaritza duena.

3. Bertze batzuk.

Kategoria bereko eskatzaile bat baino gehiago dagoenean, ordenantza hauen 3. eranskinean jasotako puntuazio sistema erabiliko da. Bertzenaz, lehentasuna duen eskatzaileari adjudikatuko zaio beti, aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraikiz.

Nolanahi ere, emakida berria ebatzi aitzin, eskatzaileek onartuta dituzten aprobetxamenduen egoera egiaztatu beharko da.

53. Artikulua

Lehendik dagoen luberri baten aprobetxamenduagatiko konpentsazioa.

Kompentsazio balorazioko taula bat ezarri da, ordenantza hauei erantsita doana (2. eranskina). Baja emandako luberritzearen tasazio ekonomikoa egingen da. Luberritzearen adjudikaziodun berriak hamabortz eguneko epea izanen du aitzineko onuradunari eginiko balorazioa ordaintzeko, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu dagokion ordainketa gutuna eta luberritzearen planoak. Luberritzean alta emateko, ezinbertzekoa izanen da bi dokumentuak aurkeztea.

Ordenantzak hausteagatik luberritzea kenduz gero, ez da inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izanen.

3. ATALA

Larraskak

54. Artikulua

1.–Larraska eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte: ordenantzen 38. artikuluan ezarritakoak, abeltzaintza txartela edukitzea, azienda Baztanen erregistratuta izatea eta Baztanen erroldatuta egotea. Aziendak indarrean dagoen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak bete behar ditu.

2.–Zeinahi azienda motarentzat eskatzen ahalko dira larraskak.

3.–Kontuan harturik ahuntz-aziendak kalte handiak eragiten dituela, azienda hori Baztango herri-lurretan alhatzea debekatzen da, salbu eta Urritzaten eta Aritzakungo behean, zuhaitzik gabeko eremu eta txaradietan. Baztango gainerakoan, Batzar Nagusiak baimendutako lekuetan baizik ez dira alhatzen ahalko, beharrezkoak diren bertze baimen batzuen kalterik gabe, kontuan harturik lurren oihan izaera eta azienda mota (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa).

4.–Eskatzailea lehentasunezko ustiategia bada edo haren lanbide nagusia nekazaritza bada, Batzar Nagusiak honako lursail hauek adjudikatzen ahalko dizkio larraskan aprobetxamendurako: Gehienez 10 hektarea zeinahi azienda motatarako. Ahuntz- eta txerri-azienden kasuan, 52.2 artikuluan ezarritako gehienekoak adjudikatuko dira.

5.–Eskatzailea lehentasunezko ustiategia ez bada eta haren lanbide nagusia nekazaritza ez bada, Batzar Nagusiak 3 gizalur adjudikatzen ahalko dizkio larraskan, gehienez, zeinahi azienda motatarako, betiere kasuan-kasuan indarrean dagoen araudia betez.

6.–Eskatutako larraskan zuhaitz partikularrak badaude, eskatzaileak akordio bat lortu beharko du jabearekin. Dauden zuhaitz moten arabera, Batzar Nagusiak agintzen ahalko du non itxi eta non ez itxi larraska.

7.–Larraskak behar bezala itxita egon beharko dira.

8.–Baimendutako pertsonak bakarrik baliatzen ahalko ditu larraskak, eta baimendutako azientekin bakarrik.

III KAPITULUA

Erlezaintza

55. Artikulua

1.–Ordenantzen 38. artikuluko baldintzak betetzen dituzten eta herri-lurretan kofoinak jarri nahi dituzten Baztango herritarrek idatziz eskatu beharko diote baimena Batzar Nagusiari, ordenantza hauen 4. eranskinean jasotako eskabide ereduari jarraikiz.

2.–Kofoinak jartzeko baimena, une orotan, erle-ustiategietarako osasun antolamenduaren eta antolamendu zooteknikoko neurrien aplikazioa (bai eta kofoinen kokapena, ezartzea eta lekualdatzea, azpiegitura zooteknikoa, osasun azpiegitura eta ekipamenduak ere) arautzen duen oinarrizko araudiaren mende egonen da, erlezaintza-jarduera eraginkortasunez eta zuzen gauzatu ahal izateko, honako salbuespen hauekin:

–GR eta SL bidezidorretatik, Donejakue Bidetik eta abarretatik, 25 metroko tartea gordeko da gutxienez.

–Oihan pistetatik, 5 metroko tartea gordeko da gutxienez.

–Hurbilen dauden etxebizitzetatik, 200 metroko tartea gordeko da gutxienez.

–Aitzinetik zeuden herri-lurren aprobetxamenduetatik eta hirugarrenen jabetzetatik, 25 metroko tartea gordeko da gutxienez.

3.–Erlezaintzako ustiategien titularrek ohartarazi beharko dute erleak badirela, ikusteko moduko lekuan eta erlategitik hurbil. Seinaleek gutxienez elebidunak izan behar dute (euskaraz eta gaztelaniaz).

IV KAPITULUA

Oihan landantzeak herri-lurretan

56. Artikulua

Zuhaitz landatze berriak Baztango herri-lurretan.

Ordenantzen 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta eremu jarraiko oihan landatzeak egin nahi dituzten Baztango herritarrek idatziz eskatu beharko diote baimena Batzar Nagusiari.

Interesa duten herritarrek idatziz egin behar diote eskaera Batzar Nagusiari. Eskaeraren gaineko txostena egin eta mendi-kargudunekin eta Baztango Udaleko oihanzainekin batera aztertu ondoren, Batzar Nagusiak izanen du emakida adjudikatzeko eskumena, beharrezkoak diren bertze baimen batzuen kalterik gabe, lurren oihan-izaera kontuan hartuta (Nafarroako Foru Komunitateko Oihan Administrazioa).

Baimendutako landaketen eskatzaileek, baimena jakinarazi eta hilabeteko epean, memoria teknikoa egin eta aurkeztu beharko dute, landaketa lokalizatu (ETRS89 30 Iparra, UTM koordenatuak), azalera, espezieak eta landaketa-esparrua adierazi.

57. Artikulua

Lehendabiziko hamabortz urteak akituta, eskindegiak kendu beharko dituzte landaketak egiteko baimena duten onuradunek. Hamabortz urte horiek iragan ondoren, onuradunek lan hori egin ez badute, Baztango Udaleko oihanzainek egoeraren berri emanen dute, eta Batzar Nagusiak urtebeteko epea emanen die biltze lan horiek egiteko. Lan horiek ezarritako epean egiten ez badira, egoera hori Baztango Udaleko oihanzainen txostenaren bidez egiaztatu ondoren, Batzar Nagusiak baja emanen dio aprobetxamenduari, ofizioz, eta eskindegia kenduko du. Lan horiek eragiten dituzten gastuak lehengo onuradunaren kontura izanen dira.

Onuradunek bertze hamabortz urtez luzatzeko eskatzen ahalko dute. Luzapena eskatuz gero, Baztango Udaleko oihanzainek eskindegiarekin jarraitzeko aukerari buruzko txostena emanen dute, eta Batzar Nagusiak baimendu edo baztertu beharko du harekin jarraitzea, txosten horretan oinarriturik. Landaketaren gastu guztiak onuradunaren konturakoak izanen dira.

58. Artikulua

Fruituak ekoiztera bideratutako oihan landaketen kasuan (monolaboreak), kanon handiagoa aplikatuko zaie, gainerako landaketen bikoitza, eta, kasu horietan, baimena emanen zaie perimetroko itxitura mantentzeko, haien aprobetxamendurako.

59. Artikulua

Kontzesioaren berraztertzeaz.

1.–Batzar Nagusiak kontzesioa berriz aztertuko du eman denetik hamar urte pasata.

2.–Herritarrek herri-lurretan dituzten zuhaitzen estatistika eguneratuz joanen da; horretarako, herritarrek datuak eman beharko dituzte eskatzen zaizkienean.

60. Artikulua

Honako hauek izanen dira emakida iraugitzeko zioak:

1.–Oihanberritzea larriki andeatzea.

2.–Ondoz ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea.

3.–Eskindegia ez kentzea 58. artikuluan ezarritako moduan.

4.–Baztanen auzotasuna galtzea. Kasu horretan, urtebeteko epea emanen da landaketa saltzeko, titulartasuna aldatzeko edo baja emateko. Epe hori akituta, Batzar Nagusiak baja emanen die ofizioz pertsona horren izenean dauden herri-lurretako zuhaitz edo landaketa guztiei, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.–Titularra hiltzen bada, oinordekoei urtebeteko epea emanen zaie landaketa saltzeko, titulartasuna aldatzeko edo baja emateko. Epe hori akituta, Batzar Nagusiak baja emanen die ofizioz pertsona horren izenean dauden herri-lurretako zuhaitz edo landaketa guztiei.

61. Artikulua

Batzar Nagusiak eta Baztango Udalak oihan landatzeak sustatzea.

1.–Horretarako egokiak diren herri-lurretan, Baztango erakundeek egoki irizten dioten adina oihan landaketa egiten ahalko dituzte, aprobetxamendua iraungitzeko espedienteak egin ondoren. Lehenago baliatzen ari zen herritarrari bertze lursail bat eskainiko zaio aprobetxamendurako.

2.–Batzar Nagusiak eta Baztango Udalak espezieen aniztasuna sustatuko dute, oihanberritu beharreko eremuaren gaineko ikerketan oinarrituta. Bertako haritzak lehentasuna du landatzeak planifikatzeko orduan, betiere herri-lurrak espezie horretarako egokiak badira. Ahal denean, dauden hariztiak berez birsortzeko beharrezkoak diren oihan lanak egingen dira.

3.–Batzar Nagusiak zuhaitziez osatutako eta herri-lurrentzat interesgarriak diren kontzesio zaharren berreskurapena sustatuko du.

4.–Batzar Nagusiak lan horietarako finantza baliabideak eta dirulaguntzak (Nafarroako Gobernuarenak edo Europar Batasunarenak izan) hartzeko beharrezkoak diren ekintza oro burutuko ditu.

5.–Batzar Nagusiak bertze interesdunekin hitzarmenak egiten ahalko ditu herri-lurretan oihan landatzeak egiteko eta mantentzeko. Horretarako onetsiriko klausulek aginduko dituzte, eta ez dira lotuko Baztango auzotasuna izatearekin.

62. Artikulua

1.–Herritarrek berez sortzen diren zuhaitzak aprobetxatu nahi badituzte, piketeak edo jasotako aprobetxamenduetatik bertzelako erabileretarako, eskaera egin beharko diote Batzar Nagusiari.

2.–Piketeak egitea eskatzen dutenean, lortutako piketeen % 40 Batzar Nagusiari eman beharko dizkiote, eta hark adierazitako lekura eraman beharko dituzte.

V KAPITULUA

Irazelaiak

63. Artikulua

Batzar Nagusiak emanen du Baztango herri-lurretako iratze-aprobetxamendua, aldeztatik hala eskatuta. Irazelaiak eskatzen dituztenek ez dute 38.1 artikulua a) letra bete beharko.

64. Artikulua

Interesa duten herritarrek idatziz egin behar diote eskaera Batzar Nagusiari. Eskaeraren gaineko txostena egin eta mendi-kargudunekin eta Baztango Udaleko oihanzainekin batera aztertu ondoren, Batzar Nagusiak izanen du emakida adjudikatzeko eskumena.

Irazelai baimenduen eskatzaileek, baimena jakinarazi eta hilabeteko epean, memoria tekniko egin eta aurkeztu beharko dute, eta irazelaia lokalizatu eta mugatu (ETRS89 30 Iparra, UTM koordenatuak) eta haren azalera adierazi.

65. Artikulua

Batzar Nagusiak galarazten ahalko du iratzeak moztea herri-lurretan, bertan oihan landararik, hala nola gaztainondoak, lizarrak, gereziendoak eta, bereziki, bertako haritzak, badira, irazelaian dauden oihan landareen dentsitatea gutxienez ere 374 metro koadroko gizarur bakoitzeko 30 landarekoa delarik. Aitzinagotik aprobetxatzen ari den herritarrari adituko, eta iratze aprobetxamendurako bertze lur bat emanen zaio.

66. Artikulua

Hamar urtean behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta herritarrek baliaturiko irazelaiaren aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

67. Artikulua

Honako hauek izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.–Irazelaia larriki andeatzea.
- 2.–Ondoz ondoko bi urtez irazelaiaren erabilera frogagarria ez egitea.

VI KAPITULUA

Laboreak

68. Artikulua

Batzar Nagusiak komunitatearen lurak lantzeko eremuak eta erabilerak (hala nola baratzeak) antolatu eta planifikatuko ditu. Antolaketa eta planifikazio horiek lotesleak izanen dira aprobetxamendu emakida orotarako, eta gehienez 10 hektarea izanen dira emakidadun bakoitzeko.

69. Artikulua

Interesa duten herritarrek idatziz egin behar diote eskaera Batzar Nagusiari. Eskaeraren gaineko txostena egin eta mendi-kargudunekin eta Baztango Udaleko oihanzainekin batera aztertu ondoren, Batzar Nagusiak izanen du emakida adjudikatzeko eskumena.

Aprobetxamendu baimenduen eskatzaileek, baimena jakinarazi eta hilabeteko epean, memoria tekniko egin eta aurkeztu beharko dute, eta laborea lokalizatu eta mugatu (ETRS89 30 Iparra, UTM koordenatuak) eta haren azalera adierazi.

70. Artikulua

Luberritzeko ematen diren herri-lurak kontzesioa eman eta bi urtera gehienez ere landu beharko dira, ezinbertzeko zioengatik ez bada. Bertzenaz kontzesioa deuseztatuko da, eta adjudikaziodunak lantzeko eskubidea izateko ordaindutako diru kopurua galduko du.

71. Artikulua

Honako hauek izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.–38. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea.

2.–Lantze ekoizpena larriki andeatzea.

3.–Errentan eman edo lagapena egitea.

4.–Kanona ondoz ondoko bi urtetan ez ordaintzea, salbu eta Batzar Nagusiak behar bezala arrazoituta erabakitzen badu ez dela azkenduko.

72. Artikulua

Hamar urtean behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta herritarrek baliaturiko laboreen aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

VII KAPITULUA

Etxeko egurra

73. Artikulua

1.–Batzar Nagusiak aprobetxamenduaren kontzesioa erabakitzen ahalko du herritarrek etxeko egurraz dituzten beharrei erantzuteko.

2.–Familia unitate eta ohiko etxebizitza bakoitzeko egur aprobetxamendu baterako eskubidea izanen da.

3.–Kontzesio erabakiak Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaizkio, baimentze ondorioetarako.

74. Artikulua

1.–Herritarren aprobetxamendurako egur loteak seinalatzean, mendien alorrean eskumena duen administrazioaren irizpideei jarraikiko zaie.

2.–Zuhaitzak ondoz ondo markatuko dira mendi administrazioak ezarritako irizpide teknikoei jarraikiz.

75. Artikulua

Egur loteetarako eta egurra ateratzeko, gehieneko epea urtebetekoa izanen da, horiek markatetik kontaktzen hasita. Baztango oihanzainek txosten batean jaso beharko dute zer egunetan markatu dituzten egur loteak. Aipatu epea akiturik, moztu ez diren egur loteak edo moztu bai baina atera ez direnak erabiltzeko kontzesioa iraungiko da, eta Batzar Nagusiaren esku geldituko dira. Egur loteagatik ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko, ezinbertzeko kasuetan izan ezik.

76. Artikulua

Onuradunek hondarrak bildu eta pilatu beharko dituzte, behin egurra eraman eta gero; hondar horiek ezin izanen dira bide, mendi bide edo pasatu ahal izateko oztopo izanen diren lekuetan metatu, eta oihana garbi utziko da.

77. Artikulua

1.–Kontu handiz behatuko da adjudikatutako egur loteak kontzesioaren helburu eta xedeetan erabiltzen diren. Galarazita dago eskuz aldatzea edo bertzerentzea.

2.–Baztango Udaleko oihanzainek zeinahi unetan jotzen ahalko dute egur lotearen onuradunengana, eta egurra non dagoen esateko eskatu. Informazio hori emateari uko eginez gero, Batzar Nagusiari jakinaraziko zaio.

78. Artikulua

1.–Haizeak botatako zuhaitzak (zain irauliak) bertzelako egur aprobetxamendu gisara ulertuko dira; beraz, interesa duten partikularrek ezin izanen dituzte saldu edo bildu; ondoz ondo markatuko dira, oihan administrazioaren irizpide teknikoari jarraikiz.

2.–Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, Nafarroako Gobernu Basozainek-Ingurumena Zaintzeko Taldeko langileek markatu eta baloratu ondoren, eta, hala badagokio, Baztango Udaleko oihanzainek aldeko txostena eta balorazio ekonomikoa eman ondoren, adjudikatzen ahalko ditu zain irauliak.

3.–Batzar Nagusiaren erabaki bidez ezarriko dira zain iraulien baldintzak.

VIII KAPITULUA

Herri-lurretako saroiak, bordak eta nekazaritza-abeltzaintzako bertzelako eraikinak

79. Artikulua

Saroiak azientak eguraldi txarretik babesteko lur eremuak dira. Bai egungo saroietan, bai gero ezartzen direnetan, azientari babesa eta itzala emateko behar adina zuhaitz landatuko dira.

80. Artikulua

Herri-lurretan azienta kontzeko bordak edo nekazaritza nahiz abeltzaintzarako baliatzeko abeltegik, heia, biltegiak edo gisako bertzelako eraikinak eraiki edo zaharberritu nahi dituzten herritarrek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, abeltzain txartela izatea, azienta Baztanen erregistraturik izatea eta abere osasuneko betebeharrak betetzea.

81. Artikulua

Herri-lurretan izan eta azienta kontzeko eraitsitako borden jabeek bi urteko epean berreraiki beharko dituzte. Bertzenaz, bertze herritar batek izanen du eremu horretan bertan edo hurbil borda bat eraikitze baimena eskatzeko ahalmena.

Epe horretan borda berreraikitzen ez badu, eta bertze pertsona batek berreraikitze baimena eskatu agertu badu, borda eraitsiaren jabeak materialak atera beharko ditu, gehienez ere sei hilabeteko epean. Hala egin ezean, udal zerbitzuek eraitsitako materiala baloratuko dute, eta adjudikaziodun berriak balorazio hori ordaindu beharko du, aprobetxamendua adjudikatu ondoren.

82. Artikulua

Herri-lur eraikiezinean nekazaritza azpiegituren arloan interesdun batek egin nahi duen jarduketa oro indarrean dauden hirigintza legeak, udal araudia eta foru araudia errespetatu beharko dituzte. Interesdunek memoria bat aurkeztu beharko dute, Udaleko Hirigintza Zerbitzuak txostena egin dezan hirigintza araudiarekin bat datorren jakiteko. Hala ere, Batzar Nagusiak eskumena izanen du proiektua egin dadin herri-lurzorua aldi baterako okupatzea baimentzeko edo ez baimentzeko.

83. Artikulua

Herri-lurretan egindako eraikina ezin izanen da erabili eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze zeinahi erabilerrako, aitzinetik Batzar Nagusiaren baimena lortu gabe eta indarra duen araudia betez.

84. Artikulua

Batzar Nagusiak hamar urtean behin berraztertuko ditu emandako emakidak.

85. Artikulua

Honako hauek izanen dira aprobetxamendua iraugitzeko zioak:

1.–38. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea.

2.–Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzea.

3.–Osasun beharkizunak ez betetzea.

4.–Kanona ondoz ondoko bi urtetan ez ordaintzea, salbu eta Batzar Nagusiak behar bezala arrazoituta erabakitzen badu ez dela azkenduko.

5.–Errentan eman edo lagapena egitea.

6.–Eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze zeinahi erabileretarako baliatzea eraikina.

86. Artikulua

Batzar Nagusiak ahalmena izanen du borda, kortxila eta bertzelako eraikinetan egiten diren jarduerak zaintzeko, Baztango Udaleko oihanzainen bidez, egoera egokian mantentzen direla eta hondakinak biltzen direla kontrolatzeko, sortzen ahal den kutsadura saihesteko (aziendaren parasitoak hiltzean edo gisako jardueretan). Nekazaritza eraikinen erantzukizuna dutenen betebeharra izanen da hondakinak jasotzea eta sarbiderako bideak mantentzea.

IX KAPITULUA

Herri-lurretako bestelako eraikinak

87. Artikulua

Batzar Nagusiak obra, instalazio eta zerbitzuetarako herri-lurren aldi baterako okupazioa erabakitzen ahalko du, dagokion kanon baten ordainketaren bidez, lanpostuak sortzen dituzten industria instalazioen eraikitzearen kasuan eta Baztanentzat beharrezkoak diren kirol, kultura, osasun edo aisialdi instalazioaren kasuan, bertzeak bertze, betiere aipatutako proiektuak jendartearentzat interesgarriak direnean eta indarra duen araudia betetzen duten bitartean. Eskatzaileak ez du 38. artikulua bete beharrik izanen, 1b atala izan ezik.

X KAPITULUA

Ehiza, eta onddo eta zizen bilketa

88. Artikulua

Ehiza Nafarroako Komunitatean dagoen foru legeen arabera arautuko da.

89. Artikulua

Antolaketa Zinegetikorako Plangintza batek arautua behar duen barrutiaren adjudikaziodunarena izanen da ehizak sortzen dituen kartutxo eta bertzelako hondakinak garbitzeko erantzukizuna. Oihanzainek urtero eginen dute ikuskapen bat barrutian, eta horretan oinarrituriko txosten bat idatziko dute Batzar Nagusiarentzat.

90. Artikulua

Baztango herri-lurretako mendietan, kanpoan zizak agertzen dituzten onddo mota ugari daude. Produktu hauen bilketak batzuetan mendietara sobera jende etorrarazten du, eta horrek natura ingurunearen hondatzea ekartzen ahal du.

Batzar Nagusiaren irudiko, espezie horien mantentzea bermatu, natura inguruneke kaltea ekidin eta mendia behar bezalako garbiketa baldintzetan mantendu behar da, eta, horrela gertatzeko, neurri egokiak hartuko dira, betiere indarrean dagoen araudia betez.

XI KAPITULUA

Kirol, aisia eta josteta jarduerak

91. Artikulua

Gaur egun, gero eta handiagoa da gizarteak naturarekin hartu-emanetan sartzeko eskaera, bertan kirol, aisia eta josteta jarduerak egiteko. Jarduera hauek natura baliabideen aprobetxamendu jasangarriak eskatzen dituen errespetu eta kontrolik gabe egiteak eragin negatiboak, hainbatetan itzulezinak, ekartzen ahal ditu. Eragin hori murrizteko, Batzar Nagusiak kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak aztertu eta hartuko ditu.

XII KAPITULUA

Ura eta ureztaketak

92. Artikulua

Herri-lurra ura bildu eta eramateko okupatzeak baimena beharko du. Horretarako, herritarrak eskaera egin behar du, eta egin beharreko lanen eta aprobetxamendua deskribatzen duen dokumentazio teknikoa aurkeztu, memoria eta lurren kokapen planoak eta okupazio planoak barne direlarik. Eskatzaileak ez du 38. artikulua bete beharrik izanen, 38.1b eta 38.3 atalak izan ezik.

1.–Eskatzaileak obrak edo ondorengo konponketek ukituriko zeinahi egitura (bideak, erretenak...) egoera onean paratu beharko du.

2.–Udalak herri-lur horietan hodiak ukitzen dituen zeinahi lan egiten badu, eskatzaileak behar diren aldaketak egin beharko ditu. Gastuak bere bizkar izanen dira, eta ez du kalte-ordainik hartzeko eskubiderik izanen.

3.–Baimenaren epe barnean Udalak, modu justifikatuan, hodiak hornidura zehatz baterako erabiltzeko eskatzen badu, eskatzailea uztera beharturik egonen da.

4.–Hodia behar bezala egonen da lurpean.

93. Artikulua

Herri-lurraren okupazioa aprobetxamendu berezi gisa baimentzen da. Baimena mantenduko da emateko orduan zeuden baldintzak diren bitartean, eta aitzineko puntuan aipatzen den dokumentazio teknikoan deskribatutako aprobetxamenduetarako bakarrik ematen da. Hamabortz urtez iraunen du, eta bertze hamabortz urtez luzatzen ahalko da, eta horrela, gainerakoetan, jarduerak dirauen bitartean. Instalazio horietan jarduna eteten bada, lurra herri-erabilerara itzuliko dira, mugarik gabe, eta, hortaz, eskatzaileak edo haren ondorengoak instalazio guztiak kendu beharko ditu bere kargura eta bere bizkar. Hori ez badu egiten, Baztango Batzar Nagusiaren jabegokoa izatera pasatuko da.

94. Artikulua

Baimenak ez du deus ikustekorik sustatzaileak erakunde eskudunei eskatu behar dien zeinahi motatako baimenekin. Halaber, instalazioaren erantzukizuna eskatzailearena izanen da soilik.

CAPÍTULO XIII ***Erautze jarduerak***

95. Artikulua

Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak egindako txostenetan oinarriturik, pertsona fisiko edo juridiko batek erauzte jardueraren bat instalatu edo handitzeko proiektua aurkezten duenean, Batzar Nagusiak dagokion lurra okupatzeko baimena eman edo ukatuko du.

XIV KAPITULUA ***Oihan suteak, eta sasiak, belarrak eta uztondoak erretzea***

96. Artikulua

Arras debekaturik dago zuhaitzak dauden herri-lurretan sua piztea, zeinahi motatakoa delarik ere.

97. Artikulua

Herritar batek zuhaitzik gabeko herri-lur zati bat erretzeko beharra baldin badu (iratzea mozten duen eremua garbitzeko edo bertze gisako arrazoi justifikagarri batengatik), hura arautzen duen mendi-araudiak ezarritakoa bete beharko du bai erretze kontrolaturako baimenaren eskaerak, bai erretzearen arrazoiek, bai hori egingen den lekuak.

XV KAPITULUA ***Facerías***

98. Artikulua

Arras debekaturik dago bertze jurisdikzioetako azientak Baztango herri-lurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan. Hitzarmena dagoen kasuetan, alhatzea bakoitzak sinatu duen kontratuak dioenaren arabera arautuko da.

Abeltzaintzan aritzen diren eta bertze jurisdikzio batzuetakoak direnek, elkarrekikoetan beren eskubideak erabili aurretik, legezko osasun baldintzak bete beharko dituzte.

99. Artikulua

Baztanek larre hitzarmenak sinatzen ahal ditu inguruko herriekin.

III TITULUA

Herri-lurretako lurzatiien trukatzea

100. Artikulua

Batzar Nagusiak herri-lurren murrizketa saihesteko irizpidea defendatuko du, eta herri-lurrak ez bereizteko ahalegina egingen du.

101. Artikulua

Lurzati txikien desafekziorako prozedura.

1.–Lurzati txikiak trukatu ahal izateko desafekzioa lortzeko beharrezkoa izanen da Nafarroako Gobernuak lurzati horiek onura publikokotzat edo gizarte onurakotzat aitortzea, Batzar Nagusiak justifikatu ondoren bilatutako xedea ezin dela lortu lagapen edo zergen bidez; nolana ere, bi horiek dira lehentasunezko bideak. Lege horrek aipatzen dituen lurzatiien neurriak araudiaren bidez ezarriko dira, haien ezaugarri eta herri-ondarearen hedaduraren arabera.

2.–Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak edo haren ordezkotako araudiak ezarritako prozedurari jarraikiko zaio.

IV TITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

102. Artikulua

Artikulu hauetan ageri diren arau-hausteak egiten dituztenek erantzukizun administratiboa izanen dute.

103. Artikulua

Arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izaten ahal dira:

1.–Arau hauste arinak:

- a) Aprobetxamendurako emandako erabilera aldatzea, Batzar Nagusiaren baimenik gabe.
- b) Baztango herri-mendietan okupazioa egitea Batzar Nagusiaren baimenik izan gabe.
- c) Herri-mendietako zuhaitzak edo egurra moztu, erauzi, kaltetu, atera edo haietaz jabetzea beharrezko titulu administratiborik izan gabe.
- d) Herri-mendietan edo herri-lurretan azienda alhatzera eramatea, debekaturik badago edo Batzar Nagusiak ezarritako arauak bete gabe egiten bada.
- e) Zain irauliak saltzea.
- f) Egur loteak saltzea.
- g) Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duen bertze zeinahi gertakari edo ekintza.
- h) Arau-hauste arinetan berrerortzea. Berrerortzea izanen da arau-haustea egiteko tenorean, ebazpen irmoz zehapena ezarri zaionetik hiru urte ez badira iragan.

2.–Arau hauste astunak:

- a) Herri-mendietan edo herri-lurretan erreketeta egitea baimenik izan gabe.
- b) Herri-lurretan gai solidoak botatzea edo likidoak isurtzea baimenik izan gabe.
- c) Arau-hauste arinetan berrerortzea eta herri-lurretan aldaketa eragiten duten arau-hausteak.

3.–Arau-hauste oso astunak:

- a) Herri-mendietan edo herri-lurretan oihanberritze artifizialetik edo naturaletik hurbil erreketeta egitea baimenik izan gabe.
- b) Herri-lurretan gai solido arriskutsuak botatzea edo likido arriskutsuak isurtzea baimenik izan gabe.
- c) Arau hauste astunetan berrerortzea. Berrerortzea izanen da arau-haustea egiteko tenorean, ebazpen irmoz zehapena ezarri zaionetik hiru urte ez badira iragan.

104. Artikulua

Hauek dira arau-hausteak egiteagatik izanen diren zehapenak:

1.–Arau-hauste arinak 600,00 euro arteko isunarekin zehatuko dira. Egur loteak edo zain irauliak saltzen dituztenek adjudikaturiko lotearen balio osoaren bikoitza ordaindu beharko du isun gisa, eta ez zaie bortz urtean egur loterik emanen.

2.–Arau-hauste arinak 601,00etik 6.000,00 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

3.–Arau-hauste oso astunak 6.001,00etik 60.000,00 eurora bitarteko isunarekin eta herri-lurretako aprobeixamenduetako titularrak izateko hamar urtez ezgaitzearekin zehatuko dira.

4.–Isunen zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko dira arau-haustearen asmoa edo arduragabekeria, eraginiko kaltegaleren munta eta aldaturiko errealitate fisikoa konpontzeko zer posibilitate dagoen. Erdizaga, Belate eta Lizartzuko larreetan azienda legez kanpo agertzen bada eta zuhaitzak legez kontra moztzen badira, 5. eta 6. eranskinetan arau-hausteen zenbatekoak mailakatzeko ezarritakoari jarraikiko zaio.

5.–Isuna ez da sekula arau-haustea egitetik ateratako mozkin baina txikiagoa izanen, eta arau-hausleak erdietsitako mozkinaren bikoitzaren parekoa izaten ahalko da.

6.–Arau-hauste arinek sei hileko epean galduko dute indarra; astunek, hemezortzi hilabete; eta oso astunek, hogeita lau hilabete.

7.–Batzar Nagusiko buruak izanen du zehapenak ezartzeko eskumena, arau-hauste arinen eta astunen kasuan; eta, arau-hauste oso astunen, kasuan, Batzar Nagusiak.

8.–Zehapenak unean-unean indarra duen prozedura administratiboari jarraikiz ezarriko dira.

9.–Zeinahi arau-hausteren erantzule den pertsonak, ezarritako isuna ordaintzeaz gain, eraginiko kalte-galeren ordaina ordaindu beharko du. Kalte-galera horiek, gutxienez, arau-haustearen aitzineko egoerara itzultzeak edo errealitate fisikoa lehengoratzek dakartzan kostuetan balioetsiko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehendabiziko xedapen iragankorra.–Ordenantza hauek onestean hamabortz urte beteak dituzten landaketa guztien emakidadunek urtebeteko epean bildu beharko dute eskindegia. Lan horiek ezarritako epean egiten ez badira, egoera hori Baztango Udaleko oihanzainen txostenaren bidez egiaztatu ondoren, Batzar Nagusiak baja emanen dio aprobetxamenduari, ofizioz, eta eskindegia kenduko du.

Bigarren xedapen iragankorra.–Baztango Batzar Nagusiak eskatuko du Parlamentuak arau esparru aski gara dezala Baztango herriek beren izenean jabetzak izan ditzaten bermatzeko.

1. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

[Aprobetxamenduen konpentsazio taula / Tabla de compensación de aprovechamientos](#) (DOC).

2. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

Aprobetxamendu bat kentzeko arrazoiak

Luberritzeak:

LUBERRIAREN EGOERA	INGURUABARRAK	PROZEDURA	ONDORIOA
Sasiak hartua da	Azaleraren %50 baino gehiago.	Traktore bat zer gainazaletik ibil daitekeen neurtuko da	Aprobetxamendua amaitzeko prozedura hastea
Itxitura	Itxituraren %50 baino gehiago irekita dago	Azalera GPS bidez neurtuko da	Aprobetxamendua amaitzeko prozedura hastea
Ez da aprobetxamendu egokirik egiten	Bertzerenazienda dago ikuskapenaren egunean, bai eta 15 egun geroago ere	Azienda identifikatu beharko da	Aprobetxamendua amaitzeko prozedura hastea

Luberrian sasia bada edo itxitura hondatuta badago, ordenantzen 50. artikuluko jarraibideei jarraikiko zaie.

Luberria alokairuan edo azpierrean badago, 49. artikuluko jarraibideei jarraikiko zaie.

Luberria hirugarrenei utzi bazaie (ordenantzen 36. artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik), 49. artikuluko jarraibideei jarraikiko zaie.

Larraskak:

LARRASKAREN EGOERA	ZENBATERAINO	PROZEDURA	ONDORIOA
Itxitura	Itxituraren %50 baino gehiago irekita dago	Azalera GPS bidez neurtuko da	Aprobetxamendua amaitzeko prozedura hastea
Ez da aprobetxamendu egokirik egiten	Bertzeren azienda dago ikuskapenaren egunean, bai eta 15 egun geroago ere	Azienda identifikatu beharko da	Aprobetxamendua amaitzeko prozedura hastea

Larraska alokairuan edo azpierrean badago edo itxitura hondatuta badago, ordenantzen 47. artikuluko jarraibideei jarraikiko zaie.

3. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

Luberri baten aprobetxamendua adjudikatzeko puntuazio taula

Guztira, 75 puntu:

Eskatzaileak bere izenean luberritza ez badu: 15 puntu.

Eskatzaileak bere izenean 5 hektareako edo gutxiagoko luberritzeak baditu: 10 puntu.

Eskatzaileak ustiategi ekologikoa egiten badu (ziurtagiri ofizialaren arabera): 15 puntu.

Eskatzailea luberritzearen aitzineko onuradunaren lehen, bigarren edo hirugarren mailako ahaidea bada eta ustiategi berarekin jarraitzen badu: 15 puntu.

Eskatzaileak 40 urte baino gutxiago baditu: 10 puntu.

Eskatzailearen lehen instalazioa bada: 10 puntu.

4. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

[Erlezaintzarako herri-lurraren eskaera / Solicitud de comunal para apicultura](#) (DOC).

5. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

Zuhaitzen balorazioa zehapen espediente bat izapidetzean

Zehapen espedientea izapidetzean, zuhaitzen bolumena da faktore garrantzitsuen; beraz, bolumen horien arabera egingen da zehapenaren kalkulua. Zenbatekoa 100-600 euro bitartekoa izanen da.

0-3 metro kubo	100,00 euro
3-5 metro kubo	150,00 euro
5-8 metro kubo	300,00 euro
8-15 metro kubo	450,00 euro
15 metro kubo baino gehiago	600,00 euro

Espediente bakoitzean oihanzainek moztutako egur bolumena zehaztu beharko dute.

6. ERANSKINA

BAZTANGO BATZAR NAGUSIA

Azienda larreetan, epez kanpo edo baimenik gabe

Behiak eta zaldiak:

1 buru	50,00 euro
2-5 buru	100,00 euro
6-10 buru	200,00 euro
11-20 buru	300,00 euro
21-30 buru	400,00 euro
31-45 buru	500,00 euro
46-60 buru	600,00 euro

Ardiak:

20 buru	50,00 euro
21-50 buru	100,00 euro
51-90 buru	150,00 euro
91-140 buru	200,00 euro
141-200 buru	250,00 euro
201-270 buru	300,00 euro